

Bost emonaldi gehiago emongo ditu Gure Zirkuak

Diman dago Gure Zirkua. Bederatzi emonaldi eukazan aurreikusita baina izan dauan arrakastearen aurrean beste bost saio gehiago emongo dabez. 2017an sortu zan Tolosaldean eta laugarren bira egiten dabiz. Akrobaziak, ekilibristak, pailazoak, malabaristak... edade guztietako jentearentzako ikuskizuna egiten dabela dino Iker Galartza Gure Zirkukoak. Publikoan, gazte asko izaten dira; kuadrillan askotan eta horregaitik beti egoten da saio bat zapatu iluntzetan. **12. orrialdea**



Ados Pilota kluba sortu dabe andrazko eskuzko pelotariak

11. orrialdea

Julen Baz sukaldariak bere proiektua baserrian oinarritu dau

Bostehun urteko baserri baten dago Garena jatetxea. Baserriko bizimodua berreskuratuteko goi gastronomia proiektua dauka sukaldariburuak.

Zabaldu barritan harrapatu eban konfinamentuak eta harrezkerotzik zabaldu eta zarratu ibili dira askotan. Baina ilusinoa eta indarra ez dau galdu sukaldariburuak, akaso bere goi mailako gastronomia proiektua ondo zuztarta dagoalako gure herriko historian eta bizimoduan. Izan be, sukaldariak "oinarrietara joan, oinarrietako saboreak berreskuratu, kalidadezko produktua erabili, eta batez be estetikeagaz eta testuraz olgau" egiten dau plater barri bat sortzerakoan. **8. eta 9. orrialdeak**



Herritar batek sufridutako eraso matxistearen kontra batu zan jentea Diman



Furgonetea zugatz baten kontra eta abiadura handiz apropos jo eba-la gidariak salatu eban kopilotu joian andreak. Gizona atxilotu eben hilketa saiakerea eta genero indarkeria leporatuta. Andrea, Tuterako ospitalera eroan eben zauri leunakaz. **7. orrialdea**

ARRATIA

Arratiako Mugimendu Feministak epaitegian konzentrazioak deitu ditu

Bagilaren 7, 8 eta 9an izango da BFAko Haur Zerbitzuaren kontrako epaiketea Irune Costumeroren kasuagaitik. Arratiako Mugimendu Feministak, egun horreetan, 09:00etan, Bilboko Epaitegiaren aurrean konzentrazioak egitera deitu dau Costumerori babesa adierazoteko. **7. orrialdea**

LEMOA

Bistibieta zabortegia handitutea ez dau gura Lemoak

Urte bi barru beteko dala aurreikusten da eta FCC enpresek handituteko proiektua abiatu dau. Lemoako Udalarai arau subsidiarioak aldatuteko eskatu eutsan horretarako baina Udalak ezezkoa emon deutso eskaerari. Makatzak taldea be handitutearen kontra dago. **5. orrialdea**

ZEBERIO

Andoni Cintado zeberioztarrak Taekwondoko Espainiako Txapelketa irabazi dau

Maiatzaren 23an jokatu zan txapelketa nagusia eta Cintadok 80 kilo azpiko kategorian irabazi eban urrezko dominea. Hirugarren aldia da Espainiako txapel-dun dala. 2019an irabazi eban lehenengoz, orduan 74 kilo azpiko kategorian eta 2020an, 80 kilo azpikoan.

Bagilaren 13tik 17ra, Bulgarian jokatzekoa dan txapelketa baten parte hartu gura dau eta abuztuan Txinan jokatuo diran munduko txapelketa unibersitarioan. Bertarako sailakaturata dago Cintado. **10. orrialdea**

EKIN
30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccionesekin.com

GARENA
Tradizio berriak

Iturriotz auzoa, 11 [Dima] • 946 317 215 • garena@garena.restaurant
garena.restaurant

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:

begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Osin



Era naturalean, berez, sortu eta urez beterik dagoan zulo sakonari esaten joko osin (oxine, ahoskatuta). Aldakiak diran beste berba honeek be jaso doguz gure inguruan: otsin/otxin (Zeberion), usin (Diman) eta utsin/utxin (Arantzazun). Erreketan be egoten dira osinak; adibidez: "Arantzazuko zubi ondoan egon zirean utxinek" (Arantzazun jasoa). Usinetako iturria eta Usineta edo Osineta Dimako leku-izenak dira. Hango pozua lino-landarea uretan sartuta eukiteko erabilten zan linogintzan lan egin behar izaten zan sasoiatan.

ERETXIA

Internetak be kutsatzen dau

Konfinamentu garaian, atmosferara isurtzen dan karbonoa murriztu egin zan lan jarduerak gitxitzeari esker, baina, konparaezina bada be, etxeetako energia gastuak gora egin eban nabarmen. Tel-elana eta teleikasketak ez ezik, aisialdi eta konsumoari lotutako jardueretan internetaren erabilera ikaragarri handitu zan: erosketak, bideo konferentziak, bermut telematikoa lagunartean, filmak, batzarrak, pilates... zerrenda amaiezina da. Horri gehitu behar jako denpora guztian, mezularitza eta sareen bitartez konektuta egoteko grina.

Ez dakit ohitura horreek ingurumenean daukien eraginaz jabetzen garan, horregaitik, gure erabilera digitalen karbono aztarnearen gaia ekarri gura izan dot, aztarna murrizteko aholku batzuek batera.

Mobikorra, tableta edo ordenagailua barrizteak zabor elektronikoren pilaketea dakar, eta fabrikatzeko erabilitako baliabideez aparte, hondakinen kudeaketea kontuan hartu behar dogu baita be. *Global E-waste Monitor 2017* txostenaren arabera, Espainiar estaduan urteko 930.000 tona zabor elektronikoa kalkuletan da, eta baztertutako aparatu, bateria, kargadoreetatik bakarrik %21a heldzean da bilketa eta birziklapen planta espezializaduetara. Pentsau daigun zenbat bateria, kargadore eta mobikor zahar daukaguzan gure etxeetan.

Baina aparatu elektronikoa etenbarik barriztatzea ez da eragiten dogun kutsadura bakarra, whatsapp mezu bat bidaltzeak, sareetako profila gaurkotzeak, argazki bat partekatzeak edo korreo elektronikoa bat bidaltzeak kutsatu egiten dau, batez be, prozesu hori egiteko behar dan energia-gaitik.

Irudi, bideo edo testu bat bidaltzen dogunean, hizkuntza komun batera bihurtzen da, Interneten



IDOIA EIZMENDI ALDASORO

Bardintasun eragilea

tzen deusagun whatsapp batek munduaren beste aldera bidaiatu leike, azkenean bere gailura helduteko. Eta hori guztia segundo gitxitan gertatzen da.

"Hodeia" izentatzen doguna ez da etereo, horren atzean 100 miloe zerbitzari baino gehiago dagoz datu zentroetan bananduta, miloe bat kilometro kable baino gehiago, miloea antena eta beste hainbeste router.

Datuak biltegitratzeko espazio fisiko eta erreala behar da, energia kopuru handiak konsumiduten dira datu horreek mobidutako eta, batez be, zerbitzailak hozteko.

2016an, FTI aholkularitzak Europar Komisionarako egindako ikerketaren arabera, kutsadura digital mota horren konsumo energetikoa eta CO2 emisioen maila industria aeronautikoaren parekoa da, zehazki, CO2 isurketa globalaren %2. Agerikoa da, geroztik, kopuru hori asko igo dala.

Hodeian eta ordenagailuan biltegitratzen dogun guztiak energia konsumoa sortzean dau, horregaitik, oso garrantzitsua da behar ez dogun guztia ezabatzea: antxineko korreoak, barriro erabiliko ez doguzan artxiboak, zakarrontzia hustu, oin dala zenbait urte hodeian gorde genduan eta inoz erabilten ez doguna behar ete dogun barrikus.

Era berean, ingurumen inpaktu murriztuko dogu fitxategi astunak bidali beharrean estekak bidaltzen badoguz edo posta masiborik bidaltzen ez badogu; izan be, hamar personari mezu elektronikoa bat bidaltzearen inpaktu laukoztu egiten da-eta.

Baina, batez be, teknologia uko egitea ez bada be, pentsau daikegu zer erabilera emoten deutsegun, behar ez diran zenbat mezu bidaltzen dogun balorau, sareai konektuta pasetan doguzan orduak zenbatu eta pentsau teknologia zel baldintzatu dituan gure bizitzak eta harremak.

Nire ustez, horretaz hausnarketa egiteak pena merezidu dau, gure osasuna eta planetearen osasunagaitik.

bidaiatu ahal izateko; gero, barri eraldatu behar da jatorrizko formatura mezua bidali dogun moduan heldu daiten. Metro gitxira dagoan persona bateri bidal-

NETFLIX EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKTUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN

GONTZAL
MENDIBILLuis Baraiazarra,
poeten poeta

Luis Baraiazarra karmeldar idazlea, itzultzailea eta poeta dogu, eta bere azken lan eder-sendoan, poetaren poeta dala esan daitegu. San Joan Gurutzekoaren idazlan guztiak, prosa eta olerkiak euskeratu ditu poetikotasuna erakutsiz.

Halanda be, oin lau urte pasatxo Santa Teresa Jesusen idazlan guztiak erderatik euskeratzeagaitik Espainiako Kultura Ministeritzak lehenengo saria emon eutsan, komunikabide guztietan zabaldu zan barria. Baina bertan behera bota eben ebatzia.

Lan hori antza, oinarrietatik kanpo geratzen zan. Itzulpena, espainolek hizkuntza arrotz batera egin behar zan eta, "euskera ez da arrotza, euskera espainiar hizkuntza da" inoen. Eta, zelan da ba posible euskera espainiar hizkuntza nazionalizat hartu eta euskal kultura Euskal Herritik kanpo apenas

ezer inon ez azaltzea? Espainiak kultura desbardinak dituala adierazo eta euskal kultura eta euskera dagoanik be ez aitzetza? Zelan da posible euskera espainiarizat hartu eta hutsaren hurrengotzat hartzea?


Meñaka bere herrian, omenaldia egin eutsien Baraiazarrari eta bertan egoan Arkaitz Estiballes, "Espainian maite ez badabe be Luis Baraiazarra eta berak egindakoa, guk maite dogula inoskun bertso ederrez". Luis, garai baten bertsolari txapelketako epaimahaiko izan zan eta berak jarri eutsan txapela Arkaitzeri lehen aldiz Bizkaiko txapeldun izan zanean.

Eta, poemetara etoriz, poema on batek, edertasuna eta esangurea euki behar dau. Ba, oingo honetan, jatorrizko bersinoak daukan metrika eta errima berean euskeratu ditu Baraiazarrak, gure hizkuntzearen sen eta soinu ederrenean. Juan de Yepes (San Joan Gurutzekoa) kartzelaratua izan zan eta hantxe idatzi zituan bere poema eder honek: "Neugan bizi gabe biziz/hain nago goi-bizi minez/hiltzen banaiz hil ezinez". Zorionak Luis, poeten poeta!

ZERTZEAN



AMAIUR SANTOS



BEGI TXINDORRA

Altzu gaitzan! Garai baltza bizi dogu aldarrikapen eta eskubideen defensearen mobimentuetan. Pandemia moduan saldu deuskuen osasun krisiak jendarteko mobimentu zein hartu-emonak murriztu, nahiz oinarritzko eskubidei muga estuak ipini deutzaz. Halanda be, herri moduan doguzan arazo eta proiektuetan ebatziak hartzea gurean egon behar dirala argi itxi deusku be izurrite honek, ebatziak nork hartzean dituanaren garrantzia ageri-agerian geratu da urte eta erdi luze honetan, alegia.

Horregaitik Gure Esku Herri Ekimeneko kideok krisi garai honetan, Erabakitzeko Eskubidearen aldeko aldarrikapena ezin dogu isilean itxi, etorkizunari gogoz eta itxaropentsu aurre egiteko. Azken urteotan, hainbat ekimen burutu dogu, mobilizazioak, herri galdeketa, eta abar. Egindako ibilbidea ezin dogu alperrik galdu! Krisi honetatik herri moduan zelan urtengo garan ebatzea gure esku dago.

Hortxe dago erronka: Erabakitzeko Eskubidearen aldeko Legezko Erreferenduma lortzea. Horretarako; herritarren gehiengoak askatasun osoz eta legez ebatzi gura dauala ikusi arazo gura dogu sinadura bilketaren bitartez. Urrats txikiak badira be, pausuz pausu, aurrera goaz eta Areatzan, maiatzean zehar, jantza giroan kalera atera gara sinadurak batu guran. Garagarilaren 3an be, Bilbon dogu hitzordua sinatu gura dogun adierazpena ikusi arazo eta sustatzeko jantza jentetsua eginaz.

Altzu gaitzan beraz! Burua astindu, bizitza biztu, jantzan egin, adostasunak josi, amesten jarraitu... Izan gaitzan eragile! Ez dago beste biderik... Adierazpena sinatu daigun!

Areatzako Gure Esku



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odonologia
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zentratu 101
R.P.S. 21/06

**2020ko errenta
aitorpena egitea**
Aholkularitza
Lekua: BBVA Areatza
Aurretiko hitzordua
699 120 827

**TERRITZ
OKA**
Igorriak
gorek
osatu!
Lekuntzari Agere 10
Igore

ARRATIA

Arratian gertatutako eraso matxistak salatuteko alkarretaratzeak

Erredakzioa

Arratiako Mugimendu Feministak lau alkarretaratze deitu ditu Igorren Arratian gertatu diran eta gertatutako eraso matxistak salatuteko. Maiatzean 14an eta 21ean, 60 persona inguru batu ziran deialdi bakotxean, eta bagilerako beste alkarretaratze bi dagoz deituta, hilaren 4an eta 11n, hain zuzen be. Biak 20:00etan izango dira Igorreko farmaziaren aurrean.

Arratiako mobimentu feministek deitutako mobilizazio honek, neskek eta andrak bizi dabean eraso matxistak salatuteko dira. Gure inguruan "tipologia desbardinatutako erasoak" dagozala eta ez bakarrik eraso oso larriak, andra eta neska gazteak bizi dabean bestelako erasoak be salatuteko dirala konzentrazioak azaldu dabe antolatzaileak. Azken aldiaren gainera, eraso larriagoak gertatu dirala be jakinarazoz dabe.



Arratian enpresetan be euskeraz egiteko, bueltan da EusGara proiektua

Errota Fundazioak bultzatutako ekimen honek Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso dau. Oin arte, eskualdeko 20 enpresek hartu dabe parte egitasmoan eta aurten enpresa gehiagok parte hartzea gura dabe.

Erredakzioa

Arratiako garapen sozioekonomikoa sustatzea helburu dauan Errota fundazioak, 2018an ipini eban martxan EusGara proiektua, Arratiako enpresetan euskeraz egitea bermatzeko. Izan be, eskualdean 10 langiletik gorako 79 enpresa dagoz eta horreetan 2.317 langilek egiten dabe behar. Ahize-AEK aholkularitza enpresek dihardu egitasmoa garatzen.

Oin arte 20 enpresak hartu dabe euskerea gehiago erabilteko konpromisoa. Helburua da enpresa gehiagotara heldutea, horreen artean 100 behargin baino gehiago dituen lantegietara.

Zulaibar Lanbide Heziketako ikastetxeagaz lankidetzan, ikasleak eskualdeko enpresaren baten praktikak egin behar dituzte, euskeraz egiteko bitartekoak ipinten dauz eusGarak.

Enpresetan euskeraz

EusGarak lantoki bakotzeko diagnostikoa egin ondoren, euskerea enpresan txertatzeko proposamen egokituak egiten ditu eta hizkuntza aholkularitza, testuen

itzulpenak eta zuzenketak, webguneak euskeratzea eta beharginak euskeraz egiteko formazio zein motibazio saioak eskaintzen ditu doban.

Enpresetan euskerea erabilteak balio erantsia emoten deusela enpresari eta bezeroen oinarritzko atikimendua lortzeko oinarritzko dala uste dabe eusGarakoak. Eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatzeko be, ezinbestekoa da enpresetan hizkuntzen kudeaketa egitea.



LEMOA

FCC Ambito SAU enpreseak Bistibietako zabortegea handitzeko proiektua abiatu dau

Bistibietako zabortegearen jaubea da FCC enpresea eta urte bi barru guztiz beteko dala aurreikusten dau. Hori dala-eta, beste sei urtez jarraituteko, 587.427 m³ handitzeko proiektua abiatu dau. Bistibietakoa zabortegea industrial da eta bertan, hondakin inertizau eta ez arriskutsuak pilatzen dira.

Erredakzioa

2021eko martiaren 18an, FCC enpreseak Lemoako Udalarri eskatu eutsan arau subsidiarioen aldaketa puntual bat izapidetzea, Bistibietako zabortegearen instalazioak handitu ahal izateko eta holan, beste tratamendu aukerarik ez dagoanez, industria-sektorearen eskariari erantzuteko, lehendik dagoan instalazio baten isurtzea lehenetsiz. Eskariaren beharra argudiatuteko hiru errazoi eman ebazan enpreseak: Hondakinak hondakindegietan ezabatzeko etorkizuneko beharra; EAEko biltegi bakarra izatea "hondakin egonkortuak" jasoteko eta "fibrozementuzko" hondakinak jasoten dituan bakarra, eta bere bizitza baliagarria 2.022an amaituko dala. Udalak, hiru txostenetan oinarrituta, ezezkua emon deutso FCCren eskaerari.

Makatzak Arratiako Ekologistak taldea be zabortegea handitzearan

kontra dago eta parte interesdun moduan emongo dau izena espedientearen gorabeheran barri zuzena euki gura daualako, eta alegazioak aurkeztu gura dauzalako, momentua danean.

Dana dala, alde batetik, zabortegea handituteko Lemoako Udalarri birkalifikatu beharko leuez lur batzuk eta Udalak ezezkua emon deutso arau subsidiarioak aldatuteko FCCren eskaerari. Eta beste alde batetik, Zaldibargo zabortegea gertatutakoaren ostean Eusko Jaurlaritzak martxan ipinitako hondakin industrialentzako plantzintzeak ez dau aurreikusten zabortegea handitzea. Beraz, proiektuak ez leuke eukiko Jaurlaritzaren babesa. Halanda be, Makatzakekoak adi ibili behar dala dinoe, erispideak aldatu daitekezalako.

FCCk Jaurlaritzeari ingurumen baimena eskatu deutso. Ekologistak Martxan-ekoak ohar batzuk egin deusiez txostenari eta ohar horreek kontuan hartuko

dirala uste dau Urtzi Barrenexea Makatzak taldekoak. Behin txostena eginda alegazio fasea egongo litzateke. Momentuz izena emon dau Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak prozesuan parte hartzeako.

Udal txostenak

Lemoako Udalarri ukatu egin dau Bistibietako zabortegearen udal plantzintzearen arau subsidiarioak puntualki aldatuteko FCCren eskaerea. Ebatzia, udal teknikariak egindako hiru txostenetan oinarritzen da: udal arkitekto aholkulariak txostena egin dau lurzoruaren urigintza tratamenduaren gainean; zerbitzu juridikoak be egin dabe txostena eta ingurumen arloko udal arduradun teknikoak be txostena egin dau, balizko inpaktuen ikerketan topautako gabezien gainean.

Udal arkitekto aholkulariaren txostenak ondorioztatu dau Lemoako Arau Subsidiarioak, debekatu egiten dabela holango

jardueretarako erabiltea bere baso eta lurzoru produktiboak, eta, beraz, gaur egun, jarduera mota hori ez litzatekela bideragarria izango. Indarrean dagoan araudia aldatutea dala-eta, jakitera emoten dau, gaur egun, udal araudia berrikusten dagoala Udala. HAPoren Aurrerapena, apiletik dago jenturaren, iradokizunak eta proposamenak jasoteko eta, 3 hilabeteko epe barruan egonda, ulertuten dala hor egin behar dituala bere iradokizunak FCC enpreseak.

Zerbitzu juridikoaren txostenak, Bistibietako zabortegearen mugakideak diran lursailak Azpiegituren Sistema Orokor moduan kalifiketako arau subsidiarioen aldaketa puntualerako proposamena izapidetzeko eskubiderik ez daukala FCCk dino eta ingurumen arloko arduradun teknikoak agirian ipini dau zabortegea handitutea eta udal araudia bateraezinak dirala, urigintzan, erabilera hori galarazota dagoalako.

Zaldibar gogoan

Zabortegea Lemoan dagoan arren, hatsa dala eta, Galdakoa eta Amorebieta-Etxanon egon dira kejak urte askoan. Izan be, zabortegeak Galdakoa eta Amorebieta-Etxanoko udalerriaz egiten dau muga iparraldean; hegoaldean, Aspunta mendia-gaz; ekialdean Amorebieta-Etxanogaz eta mendebaldean Bediagaz. "Zorrontza eta Galdakakoak aspalditik dagoz kejaz batez be lixibiaduak eta hatsak dirala-eta, eta horren inguruko ezer ez da aitatzen FCCren proposamenean. Guk uste dogu arazo batzuk badagozala eta ez bajakie urtenbidea emoten eta zabortegea handituten bada, arazoa handitu egingo dala" dino Barrenexea.

Zabortegeak amiantozko hondakinak onartzen dauz, eta hezetan handiko hondakinak be onartuten ditu; hezetan maila %65era artekoa daukienak, hain zuzen be. Hezetan altu horrek arriskua dakarrela uste dabe ekologistak lurrak desegonkortzen diralako, eta Zaldibargo hondamendiaren faktoreetako bat hondakinaren hezetan izan daitekelakoan dagoz.

Zaldibargoa zan Euskal Herrian hondakin industrialak hartzeako zabortege nagusia eta oin zabor industrialak "nonora etorri behar dira eta hona etorriko dirala uste dogu" dino Barrenexea.

IGORRE

Saharar herriaren aldeko ekimena hilaren 3an

Erredakzioa

Saharar herriaren egoerak txarrera egin dauala atzen asteotan eta Saharar herriaren aldeko marxearen antolatza dabe Euskal Herrian hainbat alkartek RASD Frente Polisarioaren ordezkarietaren laguntzeagaz. Bizkaian, hainbat jardura egingo ditue: Bilbon,

Durangon, Gernikan, Ermuan eta Igorren. Igorren, bagilaren 3an, 19:00etan, Lehendakari Agirre kalean batuko da jentea, herrira sinbolikoki sartu eta Lasarte plazan konzentrazioa egiteko.

Mobilizazio honek hiru helburu ditue, saharar herriaren burrukea ikusgarri egin; Marokoren okupazioa, baliabide naturalak kentzea

eta lurralde okupaduetan Giza Eskubideen urraketea salatutea, NBE, EB eta Espainiako Gobernuari eskatzea dekolonizazio prozesua amaitzeko eta Marokok nazioarteko legedia beteten ez dauanean ez daitela zigor barik geratu.

Egoera honetan, Sultana Khayaren kasua aitzaketa da. Ekintzaile sahararra etxean atxilotuta dago, Bojadorren (lurralde okupaduetan) agindu judizialik barik, zementitiko Frente Polisarioak su etena apurtuzat emon ostetik. Sultana Khayakek salatu dauanez, ordutik aurrera hainbat eraso sufridu dauz (isolamentua, asistentzia mediku eza, golpeak, irainak...) Pasau dan maiatzaren 11n, bera eta bere ahiztea, marokar paramilitarren eraso fisikoen eta bortxaketen biktima izan zirala be salatu dau.

Martxak

Estadu mailako martxea dago. Euskal Herriko martxa bi antolatu dira. Bata Irunen hasi zan maiatzaren 20an eta Gasteizera helduko da bagilaren 6an. Nafarroan martxea, bagilaren 4 eta 7aren bitartean izango da. Gero, Madrilerantz joango dira, eta asmoa da han, bagilaren 19an, Espainiakoak batzea.



LEMOA

Bertoko espezieakaz sortutako baso proiektu biri helduko deutso Lemoak

Erredakzioa

Aramotzen, 11 hektarea birlantatzeko esleipena onartu dau Udalak eta Murgia, Apario eta San Antolin eremu batzuetan, pinuak kenduko dira, etorkizunean beste birlantaketa bat egiteko.

Aramotzen, 10.000 zugatz birlantatuko dira eta "landatuko diran zugatzen ehuneko handi bat bertoko espezieakaz egingo da" azaldu dabe Udaletik. 2017an ha-

sitako proiektua da eta landatuko diran 10.000 zugatz horreetatik, 7.000 koniferoak izango dira eta 3.000 hostozabalak. "Espezieen birlantatzea dibersifikaua izatea da asmoa, era horretan, modu iraunkorren kudeatutako basomasen 3 funtzioak bateratu ahal izateko: funtzio ekonomiko; biodibersitatea mantentzea eta konserbazioa, hau da, funtzio ekologikoa; eta gizarteak, batez be hurreko biztanleak, gozatu ahal izateko."

teko espazioak sortzea, funtzio soziala". Udal iturrien arabera, hautatutako espezieak baldintza horreek beteten ditue eta ondo egokituta dagoz Aramotzeko ezaugarrietara. Koniferoak, itsas pinua, alertzea, pikea eta kriptomeria espeziekoak izango dira. Hostozabalak, batez be, haretzak eta urkiak, baina arteak eta ametzak be ipiniko dira.

Proiektu honek 49.711 euroko aurrekontua dauka eta Grupo Cresmes enpresek egingo dau fase bitan: lehenengo fasean garbiketeta eta bigarrean landaketeta.

Murgia, Apario eta San Antolin

Murgia, Apario eta San Antolin lursailetan dagozan pinu batzuk moztuko dira. 23 eta 55 urte arteko pinuak dira eta 99.376 euro jasoko ditu Udalak. Moztu ondoren epe baten ez dala ezer landatuko jakinarazo dau Udalak, "eta ondoren, Aramotzen egindakoaren bidetik, zati gehiena bertoko espezieakaz landatuko da".

Basoetako zugatz espezieen gaineko kezka aspalditik daukiela dino Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak, "eukaliptoaren eztabaidaz harago beharrezkoa da erakunde publikoetatik gai honeri heltzea, azken finean gure basoetan inbertidutea gure herrietako osasun, ongizate eta etorkizunean inbertidutea da".



Argazkia: Lemoako Udala.

ARRATIA

I. Graduko Menpekotasuna daukientzako etxebizitza bat atondu dau mankomunidadeak

Arratiako Udalen Mankomunitateak etxe bat dauka Zeanurin menpekotasun moderadua, I. Graduko, daukientzat. Etxea Zeanuriko Udalarena da eta hitzarmen bat sinatu ondoren, barrizatu eta behar daben arratiarren eskura ipini dau AUMk. Holan, egoitzara joan behar izan arte, pertsona bere kabuz bizi ahal izango da. Etxeak hiru logela ditu, egongela bat, komun bi eta suetea.

Erredakzioa

Transizio moduan planteetan dabe egoitzara joan aurretik eta AUMk daukan mota honetako baliabide bakarra da. "Zerbitzu-karterak derriortu egiten dau holango baliabideak eskualdean eukitera. Zerbitzu-kartera horretan batzuetan batera joan gaitezke Galdakaoko Udalagaz. Batu ginan eta Galdakaok ez eukan baliabide hau martxan. Orduan exon beharrean beste udal bateri, kasu honetan Galdakaori, aukera hau sortu jakun Zeanurin eta eskualde moduan aurrera egin dogu" azaldu deutso BEGITURI Andere Ortuzar AUMko presidentek.

Baliabide hori eskuragarri ipin-

teko udal guztiak esfortzu ekonomiko handia egin dabela dino Ortuzarrek.

Bizimodu autonomoa

Igazko urrietan hasi ziran obrak eta aurtengo zezeila aldera amaitu ziran. I. Graduko Menpekotasuna daukan Arratiako edozein pertsona joan daiteke etxe horretara biziten. Han, bere gela izango dau eta, egongela eta suetea lango espazio komunak.

Etxeko beharretan lagunduteko, etxez etxeko zerbitzua izango dabe bertan bizi diranak, euren preminen arabera. Gizarte langileak ebatziko dabe zenbat orduko laguntzea izango dan.



DIMA

Herritar batek sufridutako indarkeria matxistea salatu eben Diman



Erredakzioa

Andraizeak, Dimako andra taldeak deituta ehun lagunetik gora batu ziran maiatzaren 29an herriko plazan, bizilagun batek bizi izandako indarkeria matxistea salatu eta herritarren alkartasuna adierazoteko.

Gertakaria Nafarroan izan zan. Nafarroako Foruzaingoak atxilotu eban gizona genero indarkeria eta hilketa saiakerea leporatuta, Cintruénigon, andreagaz joiala, ibilgailua zugatz baten kontra apropos jo ostean. Andrazkoa ospitalera eroan eben zauri leunakaz. Atxilotua Iruñeko espetxera bialdu eben.

NA-6801 errepidean Cintruénigoko indusialde baten izan zan. Furgonetek zugatz bat jo eban abiadura handian. Andrazkoa ondoko jesarlekuan joian eta laguntza eske urten zan. Tuterako

ospitalera eroan eben *shock* egoeran. Andreak gertatutako salatu eta gizonarengandik urrunduteko agindua eskatu eban.

Alkarretaratzea

Zapatu eguerdian izan zan alkarretaratzea eta bertan, batez be, Dima eta Igorreko jentea batu zan indarkeria salatuteaz gainera, eraso sufridu eban andrazkoari alkartasuna be adierazoteko. Bertan egon zan erasoaren biktimea eta berbea hartu eban han bildutakoai euren babesa eskertuteko.

Indarkeria matxistek, 2003tik hona 110 andra eta 11 ume hil ditu Euskal Herrian. Aurten hiru dira hildako andrak. Hilketak dira indarkeriaren adierazpen muturrekoena, baina beste modu askotan be sufriduten dabe andrak indarkeria matxistea. Indarkeria bako bizitza lortzea da helburua.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO


Gorbeia Jomuga Turistikoa FITURen egon da

Erredakzioa

Maiatzaren 19tik 23ra, 19tik 21era profesionalentzat eta 21etik 23ra jente guztiarentzat, egon zan Madrilén FITUR, nazinoarteko turismo azokea. Euskadiko stand-aren barruan, Gorbeia Jomuga Turistikoa parte hartu eban.

Munduko turismoko profesionalentzako urteko lehen hitzordua eta Iberoamerikako merkadu hartzaile eta igorleentzako azoka liderra da FITUR. "Gorbeia Jomuga Turistikoa inoz huts egiten ez dauan hitzordua da, jakinik foro parebakoa dala markak sustatzeko, produktu barriak aurkezteko, azken joerak ezetuteko eta agendak beteteko. Bost egun horree-

tan ehunka aukera dagoz kontaktua egiteko, proiektuak hasteko eta akordioak zarratuteko" dinoe Gorbeia Jomuga Turistikotik.



IGORRE

Arratiako Mugimendu Feministak, Bilboko Epaitegi aurrean hiru konzentrazinotara deitu dau

Konzentrazinook Bizkaiko Foru Aldundiko Haur Zerbitzuko en epaiketa egunetan izango dira. Hau da, bagilaren 7, 8 eta 9an, 09:00etan, Bilboko Epaitegian, Barroeta Aldamar kalean, 10.

Erredakzioa

Alkarretaratzeak egingo dira, Iruñe Costumero eta bere alabeari alkartasuna eta babesa adierazoteko; egiturazko indarkeria matxistea eta hain zuzen be, Existiduten ez dan Guraso Alienazio Sindromea erabiltearen ondorio larriak ikusi arazoteko, eta mobimentu feministearen babesa adierazoteko, ez bakarrik Iruñe Costumerori, baita, "holango amesgaiztoak bizi dabezan ama eta ume guztiai" be.

Prebarikazino, tratu txarrak eta lesinoak leporatuta Aldundikoai

2017ko abuztuaren 3an, Iruñe Costumerori alabea indarrez kendu eutsien, Diputazinoko 10 kide baino gehiagok, Ertzaintzak eta segurtasun pribaduak barne. Hori dala eta, Bizkaiko Auzitegiak, prebarikazino eta Iruñe Costumero eta haren alabeari eragindako tratu txarrak eta lesino psikikoak eragitea leporatuta epaituko ditu

Sergio Murillo Corzo, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako diputadua, Maria Antonia Giner Cucarella, Haurren Harrera eta Balorazinoko burua, Consuelo Alonso Vergara, Haurren Zerbitzuko burua eta Maika Urutxurtu Cueva gizarte langilea.

Legebiltzarrean agerraldia

Maiatzaren 26an, Iruñe Costumero Gasteizko Legebiltzarrean

egon zan bere kasuaren barri emoten. Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordean salatu eban "erakundeak umeak lapurtzen dituela". "Alabeari eta amengandik lapurtutako ume guztiai abotsa ipinteko nago hemen, existiduten ez dan sindrome bat, Guraso Alienazio Sindromea leporatuta". Eta alabeak bizi izandako kalbarioa azaldu eban gero.

Legebiltzarrieden aldetik, EAJ-PNVko Laura Perezek, EH Bilduko Oihana Etxebarrietak; PSEko Maria Jesus San Josek, Elkarrekin Podemosko Isabel Gonzalezek eta PPko Carmelo Barriok hartu eben berbea. Jeltzaileak, "prozedura judicial irekia errespetetako" eskatu eban. Bildukoak eta PSEkoak umeen eskubideen gainean egin eben berba, esaten dabena entzunda izateko eskubidea eta euren preminak beste edozeren gainetik jartzeko eskubidearen gainean, hain zuzen be. Podemosek, gaia Legebiltzarrean aztertze konpromisoa hartu eban eta PPko Barriok gertaerak ikertze informazioa eskatuko ebala esan eban.



AREATZA

Orkatz bat zintzilik eta burua moztuta agertu zan Asteitxeko aparkalekuan

Erredakzioa

Apirilaren 22an izan zan. Gorbeia Parke Naturaleko kartel batetik egoan eskegita. Bizkaiko Foru Aldundia eta Ertzaintza kasua ikertzen dabiz nork hil eban orkatza jakiteko. Legez kanpoko ehizagaitik 100.000 eurorainoko isuna jaso daiteke, baita kartzela zigorra be.

Zirrara handia sortu eban animalia holan topatu izanak. Gorbeia aldean ezkutuko ehiza asko murriztu da atzen urteotan, baina ez da guztiz desagertu. Ha-ta guzti be, ehiztari, basozain, mendizale eta sare sozialetan ikusi ebenen alarmak biztu ebazana izan zan irudiaren biolentzia, animalia gorpua burua moztuta eta kartelatik zintzilik erakutsi izana, hain zuzen be.



JULEN BAZ

"Mundu guztia batzeako, jatekoa eta edatekoa da onena"

Lamindaon dagoan Garena jatetxeko burua da Julen Baz. 33 urteko sukaldari zornotzarrak, hainbeste ordu jatean eginda, ia dimoztartuta dagoala dino. Leioako Sukaldaritza Eskolan egin ebazan goi mailako sukaldaritza ikasketak. Hamasei urte hasi zan ostalaritzan eta Urtza tabernearen jaube izan da. Bederatzi urtez egon zan han. Azurmendi, Horma Ondo, Jauregibarria... hainbat jatetxetik pasau da Baz. Garena jatetxea 2020ko zezeilean hartu eban, XVII. mendeko baserri horretan bere goi mailako gastronomiako proiektu barriari ekiteko. Urte latz honen oztopo guztien gainetik, ilusinoz jarraituten dau beharrean, jatetxetik jentea pozik urtetea dalako saria.



Julen Baz.

Erredakzioa

Noz hasi zinan Garena jatean?

Urtza tabernan 9 urtez egon nintzan, eta oin dala 3 urte ebatzi genduan Garena proiektua mar txan ipintea. Urtza zarratutea ebatzi neban orduan eta urte bete t'erdiz emotea formakuntzan eta gauza barriak ikasten Garena proiektu hori garatzeko. Baserrietatik be ibili nintzan informazio bila eta igazko zezeilaren 20an zabaldu genduan Garena. Lehengo. Zabaldu eta aste gitxira zarratu behar izan genduan. Gero be, barriz zarratu behar izan genduan eta ordutik hiru itxialdi euki doguz.

Zelan eragin deutso horrek proiektuari?

Oso urte gogorra izan da. Izan be, zabalduko inbersino itzela egin genduan eta indar handia ipini genduan proiektuan. Zarratu behar izatea oso gogorra da eta psikologikoki be, eragin oso fuertea izan dau. Eta gainera mar txan ipinten ginanean ikus-

ten genduan jentek erantzuten ebala, jentea etorten zala, berba egiten ebala Garenaz baina mar txan apur bat hartzen genduan, barriro zarratu egin behar izaten genduan.

Horreri irakurketa positibo bat egitearren, esango dot itxialdi bakotxa erabili izan dogula aurreko tartean euki doguzan akatsak edo beharrizanak hobetuteko, eta platerai buelta bat emoteko; harreran be aldaketa batzuk egin doguz... Hau da, bezeroak eukin dogun *feed-back* horretan oinarrituta, hobetzeri begirako gauzak egiteko aprobetxau doguz tarte horreek.

Eta oin, "normalidade barri" honek zelan eragiten deutso zuen lanari?

Oso gatxa da dana guk ointxe momentuan daukaguzan limitazioak. Mahai bakotxeko persona kopuruak asko murrizten dau daukaguzan aforoa. Gu gabiz solairu bitan lanean, jatean solairu bi daukaguzanez biak erabilten doguz astegoietan, baina jakina! jangela bitan sar-

tzean gabiz jangela baten sartu ahal genduan kopuru. Orduan, ekonomikoki ikusita, lana bikotxa da eta errendimendua erdia. Lehen solairu baten 60 persona sartzean bagenduzan, oin daukaguzan neurriak solairu bitan sartzean doguz 60 lagun, baina aforo erdia euki arren, zerbitzua eta kalitatea mantendu ahal izateko langile kopuru mantendu egin behar da.

Sormen sukaldaritza egiten dozu ezta?

Bai, guk egiten doguna apurtxo bat da oinarrietara joan, oinarrietako saboreak berreskuratu, kalidadezko produktua erabili, eta batez be estetikeagaz eta testurakaz jolastu. Guk gura doguna da gure platerak eukitea betiko gisaduen saboreak, etxeetan sukaldatu izan diran oinarritzko saltsa horreen esentzia, eta produktua kalidadezko izatea. Ez gara produktu edo osagai askotakoak, "gitxiago gehiago da" esaten dan moduan. Azkenean, produktu fresko eta kalidadezkoa bada eta saltsa potente bat ipinita, nik pentsetan dot askotan nahikoa dala. Horreri bueltatxo bat emon, polito ipini eta ahal badogu testurakaz jolastea beti da interesgarria. Eta saiatu behar gara be dibertigarria izan daitela esperientzia.

Sukaldaritza izan da betidanik andrazkoen ekarpen kultural bat, inbisibilizau egin dana. Ezer ez da zerotik sortzean eta izen handiko gizon sukaldariak be andrazkoen eguneroko sukaldaritzan oinarritu dira, baina euren prestijiozko sukaldaritzegaz, oindino gehiago inbisibilizau dabe horren atzean dagoan historia kultural bat, andretatik datorrena.

Bai, ados nago horretan. Pentsetan dot gizarte matxista baten bizi garala eta oindino bardintasunerako lana oso handia dala. Zuk dinon moduan azkenean sukaldaritzaren oinarriak andrazkoenak dira. Begiratzen badozuz

antxinako Euskal Herriko sukaldaritzako liburuak, edo estatu mailakoak, edo nazioartekoak be bai, *La Marquesa de Parabere* edo holango liburuak, sukaldaritzan erreferente diranak, andrazkoak idatzitakoak dira asko. Etxeetan beti andrazkoak sukaldatu dabe, baina sukaldari onaren irudia gizonekoarena da.

Garenako proiektua da baserriko bizimodua berreskuratzea, andrazkoen lana goraitzen. Guk kontetan dogun historiko, 500 urtetatik hona, erreferentzia handiena andrazkoak dira. Eurak egoten ziran baserrian lanean eta gainera, apurtu behar izaten eben burua, eukazan osagai apurrakaz familia guztiari jaten emoteko, gozo eta merke. Nik uste dot horretara buelta behar garala.

Andrazkoen lana sukaldaritzan oso garrantzitsua izan da eta oso garrantzitsua izan behar da. Eta andrazkoaren irudi hori apurka-apurka joan behar da goi gastronomiara ekarten.

Esan dozu, hemengo produktuan eta baserriko bizimoduan oinarrituta dagoala proiektu gastronomikoa. Azaldu apur bat.

Bai. Gu Garenan, XVII. mendeko baserri baten gagoz. Gero berraltxau zan, baina badago horma bat lehenengo eraikinekoa, originala... eta pentsau neban proiektua bideratu behar genduala baserrietako bizimodutik. Hasi nintzan horretan lanean, ikerketak irakurten, jentegaz geratuten eta abar, horren barri ikasteko. Hor, 500 urteetako historia bat dago, baserri hau sortu zanetik honakoa. Garena proiektua horretan oinarritzen da.

Pentsau genduan urte horreetan zehar, andrazkoak zelango imaginazioa euki behar izaten eben, ortutik eta ganadutik ateraten ziran gauzetatik sukaldatzeko. Hau da, saltzean ez zan hondarrakaz, sukaldatu eta familia osoari jaten emon. Horretan oinarritzen da Garena: baserriko bizimodu barritua. Gure leloa

Irakurketa positibo bat egitearren, esango dot itxialdi bakotxa erabili izan dogula aurreko tartean euki doguzan akatsak edo beharrizanak hobetuteko, eta platerai buelta bat emoteko

izango litzateke, tradizino barriak. Eta horretara goaz, tradizinozko sukaldaritza barriztura.

Hori zelan gauzatzen da plater baten?

Adibidez, beti azaltzen dodan plater bat, hasikeratik daukaguna, eta nik uste bertan geratuko dana, arbigarak dira. Arbigarak beti konsumidu izan dira base-rietan. Arbia, loratzeko momentu horretan batu egin behar da, oso denpora tarte txikia da, martiaren bueltan. Lehen egiten zana zan hiru biderrez egosi eta gero berakatzatza eta urdaiegaz sukaldatzen zan.

Sukaldatzen doguna hostoa da Galiziako greloak lez, baina hemen loratu aurretik batzean dira, ostean oso garratzak dira-eta. Azpikoa ganaduari botaten jakon, behiai eta txarriai, batez be.

Guk egosteko prozesu bardi-na egiten dogu eta gero ipinten dogu okela saltsa oso potente bategaz, eta urdaiaren orde-z, ipinten dogu kokospea. Kokospea da sukaldatzen doguna eta gero plantxan markau. Eta horren ganean zigala bat ipinten dogu. Eta sasoiko loraren bat. Guk lorak asko lantzean doguz, mendikoak

ahal dala. Goizetan joaten gara basora lore bila. Ointxe momentuan borraja piloa dago eta borrajearen lorea ipinten dogu: oso polita da eta jateko gozoa. Gainera kolorea be emoten deutso.

Ortu txikitxo bat be badaukagu. Oin idarrak daukaguz eta lorak ipini barri. Eta piperrak eta kalabazinak be ipini barri. Badaukagu hor guretzako sostengu apurtxo bat eta bisitan datorren jenteari gustetan jako ikustea.

Zelango jentea etorten da? Ingurukoa bakarrik ala kanpotik be bai?

Apurka-apurka bagabiz zabaltzen. Hasikeran Arratia eta Durangoko jentea etorten zan, Gasteiztik zeozer be bai, baina badabil Bilboko jentea etorten, Madriletik be badabiz erreserbak egiten. Kanpoko jentea be hurreratzen dabil.

Edadeari jagokonean, edade guztietako jentea etorten da: jente gaztea eta jente heldua. Danoi gustetan jaku jatea. Nik uste dot jatekoa dala mundu guztia batzeako atxakiarik handiena. Hor ez dago ez politikarik ez futbol ekiporik ez ezer: jatekoa eta edatekoa dagoan bitartean, danak pozik.

Hasikeran Arratia eta Durangoko jentea etorten zan, Gasteiztik zeozer be bai, baina badabil Bilboko jentea etorten, Madriletik be badabiz erreserbak egiten. Kanpoko jentea be hurreratzen dabil



Adi, laster...
begitu.eus

PELOTEA

Joko Alaik Herriarteko Txapelketearen finalerdiak jokatuko ditu

Erredakzioa

Galdakaoren kontra jokatuko ditu finalaurrenak. Joaneko partidua Zeanurin izan zan maiatzaren 21ean eta 2-1 irabazi eben etxeok. Bueltakoa, Galdakaon, maiatzaren 28an jokatuko da. Ongoan Joko Alaikoak partidu bat irabazi, beste bat galdu eta bestea bertan behera geratu zan, baina finalerdietarako sailkatu ziran Zeanurikoak. Nagusi mailako partidua bertan behera itxi behar izan zan hezetasun handia sartu zalako eta pelotariak jausi egiten ziralako. Finalerdiak Markinaren kontra jokatuko ditue.

Zeanurin jokatutako finalaurrenetan, Kadete eta Gazte mailakoak irabazi eben eta Nagusiak galdu. Ha-ta guzti be, atzenengo hau izan zan partidurik politena, lehiarik handiena bertan ikusi ahal izan zalako; izan be, Joko Alaiko Mendiak eta Erkiagak 19-22 galdu eben Galdakaoko pelotarien kontra. Kadeteak eta Gazteak erraz

nagusitu ziran, osteria; Kadeteetan, Egiliorrek eta Beitia II.ak 22-4 irabazi eben eta Gazteetan, Artarazek eta Emaldik, 22-8.

Galdakaon be, Kadeteak errepikatu eben garaipena ia markagailu bardinagaz. Ongoan, 5-22 irabazi eutsien Egiliorrek eta Beitia Galdakaoko bikoteari. Gazte mailan, Esparta-Emaldi bikoteak 22-21 galdu eban.

I. Etorkizuneko Txapelketen Txapelketan

Zeanuriko Anton Erkiaga eta Maren Emaldi konbidatu dituzte Ataun Kultur Elkartek I. Etorkizuneko Txapelketan parte hartzeako. Biak Gazte edo Promesa mailan hartuko dabe parte. Txapelketea bagilaren amaieran jokatuko da Ataunen (Gipuzkoa). Bertan, EAEko, Nafarroako eta Errioxako Kadete eta Promesa mailako pelotari onenak hartuko dabe parte. Ataungo Kirol Elkartek antolatu dau txapelketea eta Baiko Pilota laguntzaileetako bat izango da han.

TAEKWONDOA

Espainiako Taekwondo Txapelketea irabazi dau Andoni Cintadok

Hirugarren urtez jarraian, Espainiako Taekwondo Txapelketea irabazi dau zeberioztarrak.

Erredakzioa

Maiatzaren 23an jokatuko da, Benidormen txapelketea. Jon Andoni Cintadok 80 kilo azpiko kategorian, urrezko domina irabazi eban. Espainiako Txapelketea irabazten dauan hirugarren aldia da. 2019an irabazi eban lehenengoz Espainiako txapelketea 74 kilo azpiko kategorian. Igaz 80 kilora pasatu eta bigarrenez lortu eban urrezko domina.

Europa eta munduko txapelketak

Hurrengo hitzordua Bulgarian dauka bagilaren 13tik 17ra jokatuko diran



Multi European Games Txapelketan. Abuztuan, munduko txapelketa uni-

bersitarioko jokatuko da Txinan eta Cintado sailkatuta dago.

PELOTEA

Nafarroako Emakume Master Cup Txapelketea hasi da

Erredakzioa

Arriatiako pelotari bik jokatuko dabe binakako txapelketea: Amaia Aldai Dimakoak eta Ainhoa Ruiz de Infante Dimako Txumulueta pelota klubekoak. Lehenengo parte, aurrekanporaketak, ligaxka moduan jokatuko dabe taldeka eta talde bakoetako ondoen sailkatuak pasauko dira hurrengo fasera.

Amaia Aldaik Naroa Agirre dauka bikotekide. Lehenengo partidua maiatzaren 29an jokatuko da Mendabian Olatz Arrizabalaga eta Genezane Aldairen kontra 22-10 irabaziz.

Ainhoa Ruiz de Infante maiatzaren 29 eta 30ean izan eban partiduko bi. Ruiz de Infante eta Oihana Orbegozok lera Agirre eta Arrate Bergara izan eban aurkari

Mendabian lehenengo partidua 22-21 irabazi eben. Hurrengo partidua, galdu egin eben ordea. Lodosan izan zan, Leire Garai eta Nora Mendizabalen kontra eta 13-22 amaitu zan partidua.

Hurrengo partidua

Aldairen hurrengo partidua bagilaren 5ean Berriozarren izango da.

Han, Aldaik eta Agirrek, Etxebeste eta Erasun izango dabez aurkari. Hurrengo egunean, Beran, Andrea Aldaregia eta Maite Ruiz de Larramendi izango dabez aurrez.

Hurrengo egunean, Beran, Ruiz de Infante eta Orbegozok, Laia Salsamendi eta Olatz Ruiz de Larramendiren kontra jokatuko dabe ligaxkako atzen partidua.



Genezane Aldai, Olatz Arrizabalaga, Naroa Agirre eta Amaia Aldai.

FUTBOLA

Arratia bide onean

Erredakzioa

Arratia taldeak partidu bakarra jokatuko dau maiatzeko bigarren hamabostaldian. Maiatzaren 29an jokatutakoan 7-0 irabazi eban Itaroa Huarte taldearen kontra Urbietan.

23 jardunaldiren ostean sailkapenean bosgarren postuan dago Arratia 29 puntugaz. Atzen partidu hau irabazi eta gero Arratiak aukera gehiago ditu kategoriarik eusteko baina ez da erraza izango, oindino

bidea daukie egiteko.

Datorren partidua Logroñes taldearen kontra jokatuko dabe etxetik kanpo, bagilaren 5-6ko astegoienean.

Udako Campusa

Arratiak 2009 eta 2016 urteen artean jaiotako neska eta mutilentzako Udako Campusa antolatu dau bagilaren 21etik 25era bitartean, goizeko 09:30etik 14:00etara. Bertan futbolaz gain, jolasak, margoakaz olgau, urtekerak eta abar egingo dabez. Izena 617 803 440 telefonoan edo cdarratia@cdarratia.com helbidean emon daiteke, bagilaren 11ra arte. Preziosa 100 eurokoa da eta parte hartzaileak gosaria eta kamisetak eukiko dabe.

CEPA Galdakao HHI
IKASTETXE PUBLIKOA ETA OFIZIALA
Helduen heziketa

·Euskara
·Gaztelania
·Ingelesa/Frantsesa
·DBH titulua
·Informatika
Eta gehiago...

Matrikula egiteko epea: ekaina osoa eta irailaren 1etik 15era.

www.epagaldakao.com · 94 456 60 98

Elxalde 8, Kultur Etxea (Igorre) eta Arraibi 2 (Lemoa)

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askitasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Kili-Kili
Ampo eta Puzatutakoak
Lehendakof Agirre 10 · IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 43 81

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiako tentsioa
Lentilen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabalzu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Galdar 666 58 20 06

Puzutza polygonoa, 10 LEMOA · beeredariak@gmail.com

PELOTEA

Elezkano ez zan finalerdietara heldu Buruz Buruko txapelketan

Erredakzioa

Binakakoan txapela jantzi arren, Danel Elezkano ez zan finalerdietara heldu Buruz Burukoan. Maiatzaren 21ean, Idiazabalen, Beñat Rezustaren kontra 22-8 galdu eban eta hor amaitu zan Elezkanoren ibilbidea aurtengo txapelketan. Rezustak jokatu eban finalerdia Artolaren kontra.

Elezkanok ezin izan eban ezer egin Rezustaren erakustaldiaren aurrean. Ez eban egun ona euki eta ez eban bere mailan jokatu. Rezustak izan eban sakea eta markagailua bere alde ipini eban hasikerahasikeratik eta partidu osoan joan zan aurretik gipuzkoarra. Atzenean, lau tanto jarraian egin ebazan Elezkanok, baina ordurako partidua galduta eukan.



Danel Elezkano.

Argazkia: Julen Uribe.

PELOTEA

Andrazkoen lehenengo eskuzko pelotarien kluba sortu dabe

Ados Pilota ipini deusie izena eta honen bitartez sortzaileen helburuak dira, urte osoan jokatzea eta lan baldintzak hobetutea, beste batzuen artean. Amaia Aldai eta Ainhoa Ruiz de Infante sortzaileen artean dagoz.

Erredakzioa

Klubaren aurkezpena Leitza egin eben maiatzaren 24an eta bertan klubaren beharizana azaldu eben. "Urteak daroaguz Emakume Master Cup txapelketak jokatuten eta asko eskertzen deusagu aukera hori emon izana, ikusgaitasuna lortzeako. Baina argi geukan ez zala nahikoa: txapelketa horreek laburregiak dira. Apenas jokatzen doguz bizpahiru lehia. Guk urte osoan jokatu gura dogu, eta, besteak beste, horretarako antolatu gara" azaldu eban

Maite Ruiz de Larramendik Leitza.

Hori dala-eta, lehen txapelke-



Adosen aurkezpena Leitza.

Argazkia: Ados Pilota.

tea be antolatu dabe, Plazaz Plaza izenekoa eta binaka jokatuko dabena. Leitza hasiko da bagilaren 4an eta hantxe amaituko da abuztuaren 14an. Euskal Herrian jokatuko da, baina Bartzelonan be jokatuko dabez partidu batzuk.

Aldai eta Ruiz de Infante

Amaia Aldaik Uxue Osés izango dau bikotekide txapelketan. Lehenengo partidua bagilaren 23an jokatuko dabe Mutiloan, Irantzu Etxebeste eta Naroa Agirrerren kontra.

Ainhoa Ruiz de Infantek barriz, Olatz Ruiz de Larramendi izango dau bikotekide. Lehenengo partidua Otxandion jokatuko dabe, eta Olatz Arrizabalaga eta Ane Mendiburu izango dabez aurre aurre partiduan.

Gugaz harremanetan ipinteko

94 631 73 14
eta
649 979 112

begitu

Publizidadea:
649 979 115

✉ begitu@topagunea.com

Autokontsumo Fotovoltaikoa

Dirulaguntzak dagoz, aprobetxatu!



AURREKONTUA
ESKATU



Eguzki panelak jarri eta aurreztu
%50 zure faktura elektrikoan

Arratian jadanik egindako proiektuak bisitatzeko aukera

PROIEKTUAREN KUDEAKETA OSOA
Memoria teknikoa, osagaien instalazioa eta legeztapena

☎ 944 567 368
🌐 www.ekoleds.com
📍 Bedia | Bizkaia
✉ info@ekoleds.com

ekoLEDs
INST. ELECTRICAS
600 565 079

ALKARRIZKETEAK

Iker Galartza: "Gazteak zinera edo antzerkera lez, etorten dira zirkura"

Diman aurreikusita egozan 9 saioetako sarrera guztiak saldu eta, bost emonaldi gehiago emotea ebatzi eben, bat gehiago maiatzeko atzen domekan eta bagileko lehenengo astegoienean, beste lau. Izan be, zirkuak inprobisetako aukerea emoten dau.



Erredakzioa

Ikuskizunen munduko zirkuzaile talde batek sortu eban Gure Zirkua 2017an Tolosaldean. Harrera oso ona izan dau eta hazten eta hazten doa.

Iker Galartza, aktorea eta Gure Zirkuko sortzaileetako, telebistan egindako lanagaitik da batez be ezaguna. Goenkale, Vaya Se-

manita, Euskolegas, Irrikotown, Kontrako Eztatia, 3txulo eta Historias de Alkafran-en egin dau behar, besteak beste. Antzerkian be egin dau lan Poxpolo eta Mokolo eta Poxpolo ta Konpainia pailazo taldeetan. Talde horreetatik sortu zan Gure Zirkua.

Zelan sortu zan Gure Zirkua?
Gure Zirkua 2017an sortu zan, zirkua gustetan jakun jentearen

artean. Antzerkian, telebistan, zinean... eta abar egiten genduan eta egiten dogu behar gutako askok, eta zirkua zaleak izan gara beti. Batean eta bestean ibiltzen ginan zirkua ikusten: Frantzia, Ingalaterra... Gurera ez ziran zirkua asko etorten eta etorten ziran asko ez jakuzan lar gustetan. Circo Aleman, Circo Italiano eta holan ikusita, askotan pentsetan genduan "eta zergaitik ez dauka guk zirkurik? Gure zirkua?".

Holan animau ginan eta karpaxo bat ekarri genduan Luxemburgoetik. Eta ikasi genduan karpea montetan, ikasi genduan lana hasikeratik egiten, eta gero artista zirkua bilatu genduan.

Hasikerako taldea nortzuk osotu zenduen?

Aspaldiko taldea ginan, Joseba Usabiaga, Iñigo Alustiza... Poxpolo garaitan ibili garanak herriz herri, eskoletan, kioskoak egiten, plazak, festak, antzokiak, eleizak, ganbarak, sotoak, alkarteak...

Lagun kuadrilla bat gara eta gero joan jakuz gehitzen beste batzuk. Azken urteetan, musikari bi, Eloi sukaldaria, eta pistan ikusten diran artistak. Ze zirkua baten, trapezistak eta akrobatik behar dira. Trapezistak, malabaristak, akrobatik airean, akrobaziak lurrean, ekilibristak, pailazoak, musikariak, magoa... Gura genduan zirkua parte hartzaile bat egin, adin guztietarako zeozer daukana; familia guztiarentzat, txikienetatik hasi eta helduak be gustura ikusiko eben ikuskizuna.

Inaugurazintxo Tolosan egin genduan, hangoak ginalako gehiengoak eta oso ondo. Emonaldi batzuk egin genduan eta ateratakoagaz hasi ginan zorrak pagetan eta ebatzi genduan kamioi bat behar genduala, zirkua bate-tik bestera mobiduteko. Kamioia erosi eta abiatu ginan. Batzuek kamioian egiten eben lo, beste batzuek zirkua barruan, baten batek karabanea ekarri eban, ahal zan moduan moldatzen ginan. Oso harrera ona izan eban eta lehenengo biera egin genduan Euskal Herrian zehar, sanjuantetan hasita, uda aprobetxauz.

Hurrengo urtean bira luzeagoa egin genduan eta gero, igaz, koronabirusa etorri jakun. Hori dala-eta, berandu hasi ginan garagarriean eta Gabonak arte luzatu genduan. Oin karpa barria ekarri behar izan dogu distantziak eta mantentzeko.

Laugarren bira egiten gabiz. Astiro-astiro, aurrera. Beste kamioi bat be badaukagu oin, suete moduan erabiltzen dana

eta traslodoak egitean materiala, instrumentuak eta abar gordetze-ko.

Urte osoan ibiltzen zarie ibiltari?
Aste Santu bueltan hasten gara, udabarri hasikera horretan eta urri bigarrenaren amaiera arte egiten dogu behar. Hau da, udagoiena ondo sartuta egon arte. Zemendian, 20 egun edo 3 aste opor hartzean doguz eta Gabonak aldi, beste lau aste-edo egiten dogu lan.

Oin arte Euskal Herri osoan ibili gara, herrialde guztietan. Oin dala urte bi egon ginan Bizkaian. Berrizan, Ondarrun, Mungian, Gorliz eta Bakion, egon ginan, besteak beste eta aurten Muxikan egon gara eta oin Diman. Zirkuak inprobisetako eta mobiduteko aukerea emoten dau. Koronabirusagaitik leku bat gorrian egoanean, ba beste batera joaten ginan.

Sarrera guztiak saldua, argi dago jenteari zirkua gustetan jakola.

Jenteari ikaragarri gustetan jako. Nik uste dot asmatzen dogula edade guztietako jentearentzako zeozer egiten. Txikiak, pailazoak eta euren abestiakaz gustura dagoz. Helduak be gustukoa daukie Gure Zirkua. Aitita-amama asko eta asko etorten dira zirku-ara. Eta gero gazteak. Gazteena ikaragarria da. Horregaitik beti eukiten dogu emonaldi bat zapatu iluntzean, ze orduantxe animetan jaku gazte jente gehiena; bikoteak edo kuadrillak, zinera edo antzerkera joango balira lez etorten dira.

LEHIAKETEAK

Zeanuriko aire zabaleko hirugarren Margolan Lehiaketea bagilaren 12an

Erredakzioa

Partaideak, bost bat ordu izango dabe Zeanuri edo-eta bere inguruaren gaineko koadro bat pintetako. Izan be, 09:00etatik 09:30era zigitatu eta arrastiko 14:00etatik 14:30era arte aurkeztu beharko dabez lanak sinatu barik Kultur Etxean. Sari banaketea 15:00etan izango da.

Margolanen nahitaezko gaia Zeanuri eta bere inguru izan-

go da. Euskarria laua eta kolore bakarrekoa izango da. Gehienez 100 x 100 zentimetrokoa. Teknika egileak berak ebatziko dau.

Sariak

Hiru sari egongo dira: 600 euroko saria irabazlearentzat; 300 euroko publikoaren saria eta 100 euroko saria zeanuriztar onenarentzat.

Margolan irabazleak Zeanuriko Udalaren jaubetzan geratuko dira.

BERBALDIA

Elikadura eskolan hobetuteko berbaldia Kultur Etxean

Erredakzioa

Bagilaren 9an, Igorreko eskolan umeak dituen gurasoentzako berbaldia egongo da 17:30ean Kultur Etxean. Bitartean, umeentzako, elikadura osasuntsuan oinarritutako tailerra egongo da Txiki

Gunean. Izena bagilaren 4a baino lehen emon behar da gurasoelkar-tea@igorrekoeskola.com helbidean.

Igorreko eskolako jantokiaren kudeaketeak aldaketa bat behar daua proposatu dau eskolako guraso talde batek. "Momentu honetan jantokietan, gitxi batzuen

interes pribaduen alde montautu dagoan eredu industrial aldea batera ixteko garaia heldu da" dinoe. Eskola-jangela osasuntsua, bertako produktuakaz horniduta eta justua eskatzen dabe, funtzio hezitzailea beteko dauana.



Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
Publizitatea: 649 979 115

begitu

✉ begitu@topagunea.com
www.begitu.org

belagorri

mediku naturalista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zelakoentzako elikagaiak
estetikazientzia

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Behar duzu jabetza *Behar duzu proiektu*

-Solentzen zein alokaritan
Lurrik (erakitea, landak, basoak...)
Etebiziak (puzak, basoak, etekak...)
Garajeak
Laneri komertzialak
Pabiloiak...
-Bolonarioak

Erakiri berriak erakitzeko
Eneformak
AKTibitate-proiektuak

-Borne diseinua
-CEE eta IEE-ak
-Hirigintza oharikarizta
-Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Urdulabar Agirre 22, berrito - Igoite
Nagusitasun 14, 48151 Igoite - 48151 Igoite
0911140000 / 94 611 60 60
www.ariatia.com
ariatia@ariatia.com

BERTSOLARITZEA

Bizkaiko Eskolarteko Idatzizko Bertsolari Txapelketan sari bi Arratiara

Erredakzioa

Bizkaiko Eskolarteko Txapelketako bat-bateko finala maiatzaren 29an jokatu zuen Igorreko Lasarte Aretoan. Saioa 11:30ean hasi zen eta Janire Arrizabalagak eraman eban txapela. Igor Menikak egin eban gai emozionalak eta Kepa Intxaustik ipini eutsan txapela irabazleari.

Bat-bateko txapelketan Bizkaia osoko 23 parte-hartzaile egon dira, horreetatik bi arratiarrak: Oier Mendiola eta Unai Intxausti.

Idatzizkoan sari bi Arratiara

Egun berean, bat-batekoaren ostean, idatzizko txapelketaren sari banaketara egin zen. Irabazleak bertan jaso ebezan oroigarriak. Arratiar bik eraman dabez sariak DBH 1. mailako artean Arratia BHIko Maddi Alberdi billaroztarrak hirugarren saria eraman.



Igorreko finaleko irudia.

dau eta LH6koen artean Katalin Respaldizak Arteako eskolakoak bigarren saria izan dau.

Aurten, Bizkaiko ikastetxeetako

eta bertso eskolako ikasleak parte hartu dabe sariketan eta parte hartzea itzela izan da. Milaka ikasleak parte hartu dabe.

KONTZERTUA

Confluence taldea Areatzako The Quiet Corner tabernan

Erredakzioa

Bagilaren 12an, arrastiko 19:30ean izango da Confluence taldearen kontzertua irlandar erako Areatzako The Quiet Corner tabernan. Ez da lehen aldian talde hau Areatzan dagoana, ta-

bernan bertan eta 2018ko Areatza Musik and Beer nazinoarteko jaialdian be egonda dago eta.

Confluence talde bilbotarra da, Irrintzi Ibarrolak (abotsa eta gitarrak) eta Jorge Grosek (gitarra) osotzen dabena eta soul, blues eta country estiloko



musikea egiten dabe. Areatzara Iñigo Elempuru bateriak lagunduta joango dira. Momentu honetan euren hirugarren lana izango dan diskoa grabetan dabiz.

FILMA

Cloudburst pelikulea Artean bagilaren 2an

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 27rako eukan programata Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak Cloudburst pelikulea baina momentu haretan ez zan eskaini, COVID-19aren neurriak ziralareta. Oin, berreskuratu dau film honen emonaldia Jabekuntza Eskoleak eta komedia klaseko road movie hau ikusteko aukerea egongo da Arteko Kultur Etxean, 18:00etan, hilaren 2an.

Andra zaharrai zuzendutako

Morea eta Grisa atalak, pelikula honen bidez, zahartzaro feministaren gaineko hausnarketea bultzatu gura dau. Umorez eta duintasunez, zahartzaro askea aldarrikatzen dau pelikuleak.

Sinopsia

Dot (Brenda Fricker) eta Stella (Olympia Dukakis) alkarregaz maitemindutako edadeko andrak dira. Estatu Batuetako zahar etxe batetik iges egin eta Kanadara abiatuko dira alkarregaz ezkontzeko. Thelma eta Louise-k legez, autostop egiten dagoan gazte bat jasoko dabe eta beragaz egingo dabe bidea.



KONTZERTUA

Maider Zabalegiren kontzertua Kotxepin Kultur Etxean

Erredakzioa

Bagilaren 11n, 20:00etan, Mainer Zabalegi akustikoan entzuteko aukerea egongo da Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. Izena hilaren 9ra arte emon daiteke www.lemoa.net udal webgunean.

Mainer Zabalegi Galardi, Alaitz eta Mainer 1990 hamarkadako trikiti bikote arrakastatsuen

partaide izan zan, Alaitz Tellexeagaz batera. 2004an desegin zan taldea, hiru disko kaleratu ostean. 2017an, bakarrean hasi zan eta disko bi atera dauz, Zuei (2017) eta Bidean (2019) izenekoak.

Gitarreagaz, disko horreetako kantuak eskainiko ditu zuzenekoan Mainer Zabalegik.



DUNBA

Gure bizi baldintzak bizitza baldintzatzen dabe

Lemoako JB Eguzkitza Meabe eskolako 6. mailako ikasleak

Kaixo, gu Lemoako eskolako 6. mailako ikasleak gara eta Euskal Herria eta Senegalen bizi baldintzak alderatu doguz ikerketa bat eginez. Ikerketa honetan ondorio batzuk ateratu doguz eta honek dira:

Euskal Herrian botikak, serumak, txertoak, osasun zerbitzuak, ur garbia... daukagu. Senegalen barriz, gatxa da botikak eta serumak topetea, ez daukie ur garbirik eta osasun zerbitzuak oso eskasak dira.

Hezkuntza arloari jagokonez, desbaldintasan handiak dagoz. Senegalen 1994. urtean %54koa zan lehen hezkuntzako eskolatzetasa, eta 2005ean %82koa. Oin-dino sexuaren arabera desbaldintasan dagozan arren, eskolatzet mailako aurrerapenak nesken gizarteratzeari egin deuto mesede. Horrez gainera, Senegalgo landa eremuetan ohikoa da mutil gazteak Korana erakusten dan "Daara" izeneko eskolatera bidaltzea. Eskola horreek ez dira legalak, eta higiene eta baliabide eskasak ditue. Euskal Herrian, ordea, ez da hori gertatzen eta gai-



nera, hezkuntza baliabide hobeak daukaguz.

Senegal moduko herrialdeai hainbat GKEk (Gobernuz Kanpoko Erakundeak) laguntzen deuse eta honek dira batzuk:

- Unicef
- Cáritas
- Gurutze Gorria
- Mercy
- WWF
- Ure



Gurutze gorriko langile dan Naiara Martinezegaz berba egin genduan eta bizi baldintza hobeen bila datozan personak sufriduten dabena eta egin behar daben guztia azaldu eta erakutsi euskun.

Azkenik, aitatutako horregaz guztiagaz honako hau ondorioztatu dogu: gure bizi baldintzak bizitza baldintzatzen dabe.

AGENDA

**BAGILAK 1
AREATZA**

Udabarri osoan ekintza autogidatua. Arrabako zelaietan mendizaletasuna sustatzeko proba jolasa. Beharrezko materiala jaso Parketxean. Izena 94 673 92 79 edo gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus helbidean emon.

Areatzako herri udalekueetan izena emoteko epea hilaren 2ra arte, 2009 (LH 6) eta 2017 (HH3) bitartean jaiotako umeentzat biak barne. Online betetez gain, paperean be emon daiteke izena, udaletxean edo ludotekan.

BEDIA

16:30etik 19:30era arte, hilaren 4ra arte, jaietan haur tailerretan parte hartzeako izen emotea liburutegian.

Urri lehenengoaren 17ra arte, Udan be irakurten. Bialdu argazki bat irakurten liburutegia@bedia.biz helbidera edo 636 325 578 WhatsAppera, "Udan be irakurten" esaldiagaz, izen-abizenak, argazkia noz eta non eginda dagoan eta argazkian agertzen dan liburua ea gomendatzeko dan esanez.

DIMA

Hilaren 14ra arte, Txumuluqueta pelota eskoleagaz loturea daukien argazkiak bialtzeko epea. Ahal bada, argazkien urtea zehaztu. Formato digitalean, txumuluxueta.pe@gmail.com helbidera bialdu; paperean, udaletxean astelehenetik barikura 08:00etatik 13:00etara edo frontoian, astelehen eta eguaztenetan, 16:30etik 19:30era eroan. Beste edozein ekarpen, 688 640 221 telefonoan.

IGORRE

Bagilaren 11ra arte, Arratia futbol taldeak antolatutako Udako Campuserako izena emon daiteke 617 803 440 telefonoan edo cdarratia@cdarratia.com helbidean. Campusa bagilaren 21etik 25era izango da. Prezioa 100 euro.

Hilaren 4ra arte, 9an Igorreko eskolako familientzako elikadurearen gaineko berbaldia eta umeentzako tailerretan izena emoteko epea. Izena gurasoelkarte@igorrekoeskola.com helbidean emon.

Bagilaren 7ra arte, bagilaren 21etik garagarrilaren 23ra izango diran Udako umeentzako ekintzetan izena emoteko epea. Kultur Etxean edo izen-emote formularioa ikastaroak@igorre.net helbidera bialduta.

Informazioa www.igorre.net helbidean.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

Egunean behin Lehiaketako 7. edizinoan. Jeitsi aplikazioa, erabili 204F9E kakoa taldean sartzeako. Sariak Lemoako establezimentuetan gastetako bonuak. Parte hartzeako Lemoan erroldatuta egon behar da.

**BAGILAK 2
AREATZA**

19:30ean, Jai Batzordearen batzarra udaletxean.

**Gorbeia inguruan filmautako
Ilargi guztiak pelikulea
Igorreko Lasarte Aretoan**

Bagilaren 13an egongo da ikusgai, 18:45ean Lasarte Aretoan, aurtengo Fant Zinemaldi Fantastikoan estrenautako *Ilargi guztiak* filma. Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan grabau zan, Igor Legarretaren bigarren film luzea dan hau. Itziar Ituñok, Josean Bengoetxeak eta 12 urteko Haizea Carnerosek egiten dabez aktore lan protagonistak.

Azken gerra karlistea (1876) eta Espainiako Gerra Zibilaren artean kokatzen dan fabula baten istorioa kontetan dau pelikuleak. Heriotza eta hilezkortasunaren gaineko gogoetea egiten dau.

**ARTEA**

18:00etan, Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Cloudburst* pelikulea Kultur Etxean.

**BAGILAK 3
IGORRE**

19:00etan, Saharar herriaren askatasunaren aldeko martxea. Lehendakari Agirren, herrira sinbolikoki sartu eta Lasarte plazan alkarretaratzea.

LEMOA

Lemoa pedalkadaka erronkan izen-emotea www.lemoa.net webgunean, sare sozialetan edo 688 661 477 WhatsAppean.

**BAGILAK 4
DIMA**

20:00etan, Gure Zirkua.

IGORRE

20:00etan, Arratiako Mugimendu Feministak deituta, eraso matxistak salatuteko konzentrazioa Lehendakari Agirre kalean.

LEMOA

18:30ean, Ainara Ortega eta Iñaki Igarretaren berbaldia *Legearen gainbegirada bat: zer egiten ari dira? Zer da legala eta zer ilegal? Herritar moduan zer egin dezakegu?* Karabie gaztetxean. Izena aurretik emon harrikerarrakblog.wordpress.com-en.

**BAGILAK 5
DIMA**

16:30ean eta 19:00etan, Gure Zirkua.

**BAGILAK 6
DIMA**

12:00etan, Gure Zirkua.

IGORRE

16:30ean, zinea, *Ahí viene Cascarrabias*; 18:45ean, *Otra ronda (Druk)* Lasarte Aretoan.

**BAGILAK 7
BEDIA**

17:15ean, Txiki-Txoko-ko batzarra; 18:30ean, udalekueetako batzarra frontoian.

LEMOA

Hilaren 14ra arte, Gazteak-Uda:

Hezkuntza Emozionalerako izena emoteko epea www.lemoa.net webgunean, sare sozialetan edo 688 661 477 WhatsAppean.

**BAGILAK 9
IGORRE**

17:30ean, Igorreko Guraso Elkarrekin antolatuta, Igorreko eskolako umeen familientzako elikadura eskolako berbaldia Kultur Etxean. Bitartean umeentzako elikadura tailerra Txiki Gunean.

**BAGILAK 10
BEDIA**

17:15ean, Uda Gaztea Bidaia eta 18:30ean, Udagaztea II. batzarrak frontoian.

LEMOA

Hilaren 24ra arte, Jatorri Desbardineta Esperientziatarako izena emoteko epea www.lemoa.net webgunean, sare sozialetan edo 688 661 477 WhatsAppean.

**BAGILAK 11
IGORRE**

20:00etan, Arratiako Mugimendu Feministak deituta, eraso matxistak salatuteko konzentrazioa Lehendakari Agirre kalean.

LEMOA

20:00etan, kontzertua: Maider Zabalegi akustikoan Kotxepin Kultur Etxean.

**BAGILAK 12
AREATZA**

19:30ean, Confluence taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

DIMA

09:30ean, Lurguia, Baso Biziak eta Makatzak taldekoak hektarea bat eta erdiko eukalipto lursaila bota Olazabalen; 12:00etan, prensurrekoa.

ZEANURI

09:00etan, Zeanuriko Aire Zabalegi Margolan III. Lehiaketea; 15:00etan, sari banaketea Kultur Etxean.

**BAGILAK 13
IGORRE**

16:30ean, zinea, *Maia erlea, urrezko esfera*; 18:45ean, *Ilargi guztiak* Lasarte Aretoan.

10:00etatik 14:00etara, merkadua 105eko parkinean. Erosketa guztiak tokiko produktuen zozketan parte hartuko dabe.

**BAGILAK 14
BEDIA**

Hilaren 18ra arte, 10:30etik 12:30era udaletxean eta 16:30etik 19:30era liburutegian, jaietan, balkoi edo leihoetan ipinteko jaietako zapia jaso.

Arabiako Urri lezetakoan
Gure
ikastetxeak
Luzkalduna
kalidazekoan
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre


Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzialean, Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

LANA

ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deusut; horretarako, plan personalizua egingo deusut heziketa nutricional, coaching edota *mindful eating*-a oinarritat hartuz. Hartu-emonetarako: narao_esparza@hotmail.com (lehen hitzordua doban).

TABERNAN LAN EGITEKO PREST

Astegoi eta jaiegunetan tabernan lan egingo neuke Arratia edo inguruetak herrietan. Arloan esperientziaduna naz. Interesautu egon ezker idatzi

konpromiso barik 619 893 185 telefonora.

LAN EGITEKO PREST

Nikaraguako andra heldua, lan egiteko prest. Persona nagusien zaintzan hainbat urte ibilitakoa. Behar izan ezker deitu 648 470 485 telefonora.

SALTZEAN DODAZ

Fagor etxeko labadorea, Class A+A, LF-1106, 1.000 erreboluzino, 6 Kg. 50 euroan, eta Aspes etxeko hozkailua, Ideal modeloa, goikaldean izozkailua daukana eta behekaldean hozkailua, 100 euroan. Telefonoa: 616 634 306.

LAN BILA

Adineko personak zaintzean ibilitako andra kubatarra lan bila dabil. Barruko neska edo bestela. Telefonoa 688 849 089.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Areatzako Udalak emondako Areatza bisitatzeko koadernoak liburuak.

Nahia Aurrekoetxea (Dima)
Kubulu Euskaltegia (Igorre)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera ilargi guztiak filmarako.

David Ibarra (Dima)
Amaia Astondoa (Areatza)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 19 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean moda
sema
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • sema@topagunea.com

ZEKUTZE
JATETxea
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARDO

begitu

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 · 94 673 70 55 · 94 612 11 96 · Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea · Igorre (Bizkaia)

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel.: 94-673-70-87
Tel.: 609-79-40-54

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
Publizitatea: 649 979 115
begitu
begitu@topagunea.com
www.begitu.org

BIZARGINAK
-Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Bixarra egin eta bukanduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE



arratia
ubide
zeberio

18
URTE

**BAIETZ
50 LAGUN
BARRI EGIN!**

2021EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAKKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2021ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.



begitu

**Oin Estudio Duendek BEGITUrako
publizitatea diseinatzeko deutsu.**

Publizitate eksklusiboa, zure enpresea IKUS arazoko dauana.
Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukerea eukiko dozu
(beste aldizkari batzuk, internet...).

1. AUKEREA
Diseinua +
4 aldiz modulo 1 BEGITUen

95€*

2. AUKEREA
Diseinua +
4 modulo BEGITUko portadan

135€*

Publizitatea:
649 979 115

*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.

LEMOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL

LEMOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 31 03 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA











